

**ZUMAIAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK
ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA
ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA**

**ORDENANZA REGULADORA POR LAS QUE
SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE AYUDAS
PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA EN EL
MUNICIPIO DE ZUMAIA**

ZIOEN AZALPENA

Dagokigun honen xedea da Zumaia herrian etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea, konkurrentziazko lehiaren erregimenean eta Zumaia herriko Diru-laguntzen Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez. Diru-laguntzek honako helburu hauek izango dituzte:

- 18 eta 35 urte bitarteko (35ekoak barne) adina duten gazteei diru-laguntza ematea. Bereziki, gazteei laguntzea beren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan.
- Modu orokorrean, Zumaia herrian etxebizitzaren alokairua sustatzea.
- Alokatzeko den etxea partekatzea.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauen xedea da Zumaia udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten **18 eta 35 urte bitarteko gazteei** alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, beren emantzipazioa sustatzeko eta etxeak partekatzeko aukera zabaltzeko herrian.

Azken urteotako egoera ekonomikoak inoiz baino kinka larriagoan jarri du gazteen enpleguaren maila, eta horregatik Udalak bultzatu nahi du, aldi berean, herriko gazteen formazioa, aukera gehiago izateko lan merkatuan txertatzeko.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente tiene por objeto la aprobación de las bases que regularan el otorgamiento de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Zumaia, en régimen de concurrencia competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia. Estas subvenciones tienen los siguientes objetivos:

- Conceder una ayuda económica a jóvenes de entre 18 y 35 años (inclusive). Especialmente, ayudar a las personas jóvenes en su proceso de emancipación y de inserción al mundo adulto.
- En general, fomentar el alquiler de viviendas en Zumaia.
- Compartir la vivienda alquilada.

I. OBJETO

Artículo 1. Objeto.

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir en parte del pago de alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de jóvenes de entre 18 y 35 años, que dispongan de una vivienda en régimen de alquiler, para fomentar así su emancipación y el alquiler compartido de viviendas en el pueblo.

La situación económica de estos últimos años ha situado el nivel de empleo juvenil en su punto más crítico, y es por eso que el Ayuntamiento quiere fomentar, al mismo tiempo, la formación de la juventud de Zumaia, para facilitarles su inserción en el mercado laboral.

Halaber, Zumaiako Udalaren helburuetako bat da alokatutako etxebizitza partekatzea, baldin eta etxea errentan hartzen dutenak adin tarte horretakoak badira eta errentamendu kontratua denek sinatzen badute, banan-banan. Kasu horretan, eskatzaile bakoitza bizikidetzat unitate independentea izango da eta kontratua sinatu duten guztien artean hainbanatuta konputatuko da errenta (alokairua).

Diru-laguntza hauei dagokienez, bizikidetzat unitatetzat joko da pertsona bakarra edo bikote bat, kide biak adinez nagusikoak, euren kargura adin txikikoak izan ala ez.

Diru-laguntza hori oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetean izandako alokairu gastua kontuan hartuta eta betiere, baldintza horiek denbora tarte horretan mantentzen badira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairu edo diruz lagundu daitekeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta baleude ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko zenbateko finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo kontribuzio edo zergagatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horien hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

Asimismo, uno de los objetivos del Ayuntamiento de Zumaiá es que se comparta la vivienda alquilada, siempre las personas que alquilan la vivienda sean de esa franja de edad y que el contrato de arrendamiento se suscriba con todas y cada una de ellas. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada una de las suscribientes del contrato.

A efectos de estas subvenciones, se entiende por unidad convivencial a la persona única o pareja, mayores de edad con o sin menores a su cargo.

La subvención se realizará según las condiciones establecidas en las presentes bases, para el gasto de alquiler asumido por el beneficiario durante un mínimo de 12 meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, queda excluido del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, el correspondiente al garaje, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o contribuciones y arbitrios descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

2. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Zumaiako Udaleko Osoko Bilkura da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikulua dioenaren arabera).

3. artikulua. Araudi aplikagarria.

Diru-laguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu. Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaiako Udalak eta bere erakunde autonomoek diru-laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea.

4. artikulua. Onuradunak

Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, baldintza zehatz hauek beteko dituzten pertsona edo bizikidetzak unitateak:

- a) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, bizikidetzak unitatean kide diren mendeko adin txikikoak izan ezik.

Artículo 2. Órgano competente.

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Pleno municipal de Zumaia (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

Artículo 3. Normativa aplicable.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

- Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.
- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.
- Ordenanza general reguladora del otorgamiento de subvenciones por el Ayuntamiento de Zumaia y sus organismos autónomos.

Artículo 4. Personas beneficiarias

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas con cargo al ejercicio presupuestario vigente, las personas o unidades convivenciales que, a la fecha de publicación de las presentes bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:

- a) Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, excepción hecha de los/as menores dependientes que cohabiten con la unidad convivencial.

Diru-laguntza 36 urte betetzen diren hilaren aurreko hilabetera arte onartuko da.

La ayuda será reconocida hasta el mes anterior a aquel en que cumplan 36 años.

b) Eskatzaile edo bizikidetzaren unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitza, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren ehunekoak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzaren balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada.

b) Que ninguna persona solicitante o miembro componente de la unidad convivencial solicitante posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.

c) Diru-laguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateetan sartutako pertsona guztiak diru-laguntza jasoko duen etxebizitzan errolatu beharko dira alokairu kontratua sinatu ostean, eta datu hau diru-laguntza jaso baino lehen egiaztatatu beharko dute.

c) Todas las personas que forman parte de la unidad convivencial del solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda.

Halaber, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxebizitzan errolatuta (bizikidetzaren unitateko kide ez direnak), kontratuaren titularrek errolatu baxa eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

Asimismo, en caso de que haya personas no titulares del contrato empadronadas en la vivienda (que no sean miembros de alguna de las unidades convivenciales), los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

d) Gutxienez bizikidetzaren unitateko pertsona bat Zumaia herrian errolatuta egon izana, gutxienez 10 urtean, eskaera aurkezteko unean.

d) Que al menos una de las personas integrantes de la unidad convivencial conste haber estado empadronada en el municipio de Zumaia, durante al menos 10 años, en el momento de presentar la solicitud.

e) Bizikidetzaren unitateko diru sarreren muga, honako hau baino txikiagoa izango da:

e) El límite de ingresos de la unidad convivencial será inferior a:

- 25.000,00 euro gordin urtean (eskatzaile bakarra bada).
- 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira).

- 25.000,00 euros brutos anuales (si es un/a solicitante).
- 35.000,00 euros brutos anuales (si son dos o más solicitantes).

- | | |
|--|---|
| <p>f) Banandu edo dibortziatuen kasuan, diru sarreren zenbatekoa kalkulatzekoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.</p> | <p>f) En el caso de personas separadas o divorciadas, para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.</p> |
| <p>g) Diru-sarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 600 eurotik gorakoa izan.</p> | <p>g) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido, no podrá superar en su conjunto la cifra de 600,00 euros anuales.</p> |
| <p>h) Bizikidetzaren Unitateko kide guztiek Zumaiako Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak eguneratuta izan behar dituzte.</p> | <p>h) Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Zumaia.</p> |
| <p>i) Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.</p> | <p>i) La persona beneficiaria no tendrá vinculación familiar con la persona arrendadora hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.</p> |
| <p>j) Eskatzaileek Etxebiden izena emanda edo inskripzio eskaera aurkeztu dutela egiaztatu beharko dute. Obligazio hau ez dute bete beharko Etxebiden izena emateko baldintzak betetzen ez dituztenek.</p> | <p>j) Las personas solicitantes deberán justificar estar inscritas o presentar solicitud de inscripción en Etxebide. Estarán exoneradas las personas que no cumplan los requisitos para inscribirse en Etxebide</p> |

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Zumaiako Udaleko diru-laguntzak emateko ordenantzan ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

En todo caso, para la consideración de beneficiaria, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y artículo 5 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Zumaia.

5. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitzak Zumaiako udalerrian kokatuta egon beharko du eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez ondorengo bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu:

- a) Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze iturri elektriko edo gaszkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- b) Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.
- c) Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.
- d) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 voltetako instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.
- e) Iturriko ura izatea.
- f) Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.
- g) Kalerako aireztatzea.
- h) Bizikidetzaren unitateko bi pertsonako (gehenez) logela bat, salbuespena egingo da adin txikikoak dauden kasuan.

Bete beharreko baldintza horiek Udaleko Hirigintza sailak ikuskatuko ditu.

6. artikulua. Baztertzeak.

Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:

- a) Ondorengo etxebizitzak:
 - 1. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
 - 2. Azpierrementuak.
 - 3. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
 - 4. Helburu turistikoa duena.
 - 5. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.

Artículo 5. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Zumaia y debe contar con la correspondiente licencia de habitabilidad.

2. En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

- a) Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.
- b) Cuarto de baño con ducha o bañera.
- c) Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.
- d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.
- e) Disponer de agua corriente.
- f) Saneamiento con vertido a la red general.
- g) Ventilación a la calle.
- h) Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar, a excepción de que se trate de personas menores de edad.

El departamento de Urbanismo del Ayuntamiento se encargará de inspeccionar dichos requisitos.

Artículo 6. Exclusiones.

No serán personas beneficiarias de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:

- a) Las siguientes viviendas:
 - 1. Las viviendas de protección oficial de promoción pública.
 - 2. Los subarrendos.
 - 3. Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).
 - 4. Las que tengan un objetivo turístico.
 - 5. Los locales usados como vivienda.

- | | |
|--|--|
| <p>6. <u>Bizigune</u> programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.</p> <p>b) Hilean 600 euroko zenbatekoa gainditzen duten alokairuko etxebizitzak.</p> <p>c) Ez da onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.</p> <p>d) Beren izaera edo helburua kontuan izanik, beste Udal sail edo erakunde autonomoren baten programetan lagundu beharrekoak.</p> | <p>6. Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.</p> <p>b) Las rentas de alquiler que superen 600,00 euros.</p> <p>c) No se admiten contratos de duración inferiores a 1 año.</p> <p>d) Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.</p> |
|--|--|
- Nolanahi ere, dagokion sail edo erakundeari helaraziko zaizkio eskaera horiek, eta interesdunari egoera horren berri emango zaio.
- En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

II. ESKAERAK

7. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Zumaiako Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantzan datozenez gain, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Zumaiako Udalari.
- Diru-laguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektibo, nola subjektibo– aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauen 4. artikuluan (d hizkia) adierazitako baldintzak betetzeko behar diren kudeaketa lanak egitea.

8. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki,

II. SOLICITUDES

Artículo 7. Obligaciones del beneficiario.

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y en la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Zumaiá, son obligaciones del beneficiario:

- Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.
- Deber de aportar al Ayuntamiento de Zumaiá cuanta información complementaria les sea solicitada.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
- Realizar las gestiones necesarias para cumplir los requisitos establecidos en el artículo 4 de estas bases (letra d).

Artículo 8. Presentación de solicitudes: plazo y modo.

Quienes deseen optar a estas ayudas deben presentar una solicitud de acuerdo

Zumaiako Udalean eskura daitekeen eskabide eredu ofiziala aurkeztu beharko dute.

con el modelo oficial existente en el Ayuntamiento de Zumaiá de conformidad con lo establecido en la convocatoria.

Dokumentazioa:

Documentación:

Oinarri orokorren 5. artikuluan adierazitako baldintzak betetzeaz gain, diru-laguntza lerro honetarako eskatzaileak honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

Además de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 5 de las bases generales, para esta línea de subvención el solicitante deberá aportar la siguiente documentación:

Orokorrean, kasu guztietarako:

En general, para todos los casos:

1. Eskabidea, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen errolda agiria.
4. Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.
5. Kontu Korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
6. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urteko gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
2. Fotocopia del DNI o tarjeta de residencia, de cada una de las personas demandantes de la ayuda.

En el caso de existir menores de edad, se aportará, además fotocopia del Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.

3. Certificado de empadronamiento de la persona solicitante y de la unidad convivencial.
4. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente y abarcando el periodo subvencionable.
5. Documento que acredite la titularidad de la cuenta.
6. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.

Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:

Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitza partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura.
- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

— En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.

— En caso de donación, escritura de donación.

— En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

7. Bizikidetzaren Unitateko kide guztien diru sarreren egiaztapenak: nominak edo beste diru sarreren agiriak (erakunde eskumendunak egindakoa).

7. Certificados de los ingresos de todas las personas de la unidad convivencial: nóminas o justificante de ingresos (emitido por el organismo competente).

A) PFEZ aitortzeko derrigortasuna duenak edo dagoeneko aitortu duenak, honakoak aurkeztu beharko ditu:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga ekitaldian aurkeztutako Aitorpenaren fotokopia eta horren jatorrizkoa, biak erkatzeko, eskaera hau aurkezteko unean.
- Gainera zergapekoak ez diren prestazioak jasoko balira, prestazio horien ziurtagiria.

B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez duenak honakoak eman beharko ditu:

Kasu guztietan:

- Ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

- Lanbizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egindakoa.

Gainera, hala behar denean:

- Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru sarrera gordin guztiei buruzko emandakoa.

- Bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu emaileak laguntza horien ziurtagiria.

C) Banandu edo dibortziaz dauden pertsonen kasuan:

- Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatik mantenu pentsioa. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

A) A quien tenga la obligación de declarar o haya declarado el IRPF, deberá acreditar:

- Fotocopia, junto al original para su cotejo, de la Declaración presentada del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, correspondiente al último ejercicio fiscal vencido, en el momento de presentación de esta solicitud.

- En el caso de percibir, además, prestaciones no contributivas, certificado de las mismas.

B) A quien no tenga la obligación de declarar el IRPF, deberá acreditar:

En todos los casos:

- Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF en dicho ejercicio (último ejercicio fiscal vencido en el momento de presentación de la presente solicitud).

- Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.

Además, cuando sea el caso:

- En el caso de trabajadores/as por cuenta ajena, documento expedido por la empresa o persona empleadora sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente al dicho ejercicio.

- En el caso de Pensionistas o perceptores de becas, prestación o subsidio, (incluidas las ayudas de Bienestar Social), el certificado de las mismas, correspondientes a dicho ejercicio.

C) En el caso de solicitantes separados/as o divorciados/as:

- Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos/as. Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.

— Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

* Diru sarrerak egiaztatzeko orduan, ezingo da ekitaldi berdin bateko errenta aitortpena edo ordezeko agiriak, urte desberdinetako diru-laguntzak eskatzeko aurkeztu.

8. Administrazioarekin zerga-betebeharrak Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzea, edo Udala baimentzea administrazioarekin zerga-betebeharrak betetzerakoan egunean dituela egiaztatzeko.

9. Orokorrean edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeratan ez dagoela eta oinarri hauen 4. eta 5. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.

Adierazpen horrek honakoak adieraziko ditu: alokairuko etxebizitzan bizi d(ir)en edo biziko d(ir)en pertsona(k), deialdiaren baldintza zehatzak betetzen ditu(zt)ela.

10. Diru-laguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Zumaiako Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko betebeharrak diren baldintza guztiak betetzeko datuak bil ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

— Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak, urtero Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.

— Justificante de pago del Importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.

* A la hora de justificar los ingresos, no se podrá presentar la declaración de la renta o documentos sustitutos correspondientes a un mismo ejercicio, para solicitar ayudas aprobadas para distintos años.

8. Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración. En su caso permitir al Ayuntamiento consultar dicho cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Administración.

9. Declaración Jurada en el que se haga constar que la solicitante no está incurso en ninguna circunstancia que le impida recibir subvenciones con carácter general y particularmente, que cumple los requisitos establecidos en los artículos 4º y 5º de estas bases.

Dicha declaración deberá hacer constar los siguientes extremos: persona o personas que habiten o vayan a habitar en la vivienda objeto de alquiler; y que cumplan los requisitos específicos de la convocatoria.

10. Cualquier otra documentación que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.

Las personas solicitantes deberán autorizar expresamente a los servicios municipales del Ayuntamiento de Zumaiá a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para constatar el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ser beneficiario/a de las ayudas, a tenor de lo exigido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

— Plazo de solicitud:

Las solicitudes deberán presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

9. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, eta prozedura artxibatuko da, 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

Artículo 9. Subsanación de defectos.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre).

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.

III. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA**10. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.**

Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileen diru sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari diru kopuru bat esleituz.

ATAL SISTEMA

<i>Diru sarrerak(gordinak)</i>	<i>Laguntza</i>
3.000,00 € - 15.000,00 €	%65+ %10 partekatzeagatik
15.001,00 € - 21.000,00 €	%55+ %10 partekatzeagatik
21.001,00 € -25.000,00 €	%42+ %10 partekatzeagatik
25.001,00 € - 35.000,00 €	%32+ %10 partekatzeagatik

Diru-sarreraren ponderazio edo haztapena honako formulari jarraiki gauzatuko da:

DSH (diru sarrera haztatuen zenbatekoa) = DSK (diru sarrera konputagarriak) x K (bizikidetasun unitateko kide kopuruaren araberrako haztapen koefizientea) x E (gutxienez diru sarreraren % 20ko ekarpena egiten duten hartzaileen araberrako haztapen koefizientea).

III. CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN**Artículo 10. Cuantía de las ayudas.**

La cuantía de la subvención se establece en un sistema de tramos establecidos según los ingresos anuales justificados de los solicitantes, adjudicándole a cada tramo un porcentaje.

SISTEMA TRAMOS

<i>Ingresos (brutos)</i>	<i>Subvención</i>
3.000,00 € - 15.000,00 €	65 % + 10% por compartir
15.001,00 € - 21.000,00 €	55% + 10% por compartir
21.001,00 € - 25.000,00 €	42 % + 10% por compartir
25.001,00 € - 35.000,00 €	32 % + 10% por compartir

La ponderación de los ingresos se efectuará de acuerdo con la siguiente fórmula: IP (cuantía de los ingresos ponderados) = IC (Ingresos computables) x N (coeficiente de ponderación en función del nº de miembros de la unidad convivencial) x A (coeficiente de ponderación en función del nº de perceptores que aporten al menos el 20% de los ingresos).

K eta E haztapan koefizienteak, urteko diru sarrera haztatuak zehazteko aplikagarriak, honako hauek izango dira:

"K" haztapan koefizientea Kideen kopurua	"E" haztapan koefizientea Hartzaileen kopurua
Kide bat: 1,00	Hartzaile bat: 1,00
2 kide: 0,95	2 hartzaile: 0,90
3 kide: 0,90	3 hartzaile edo gehiago: 0,85
4 kide: 0,85	
5 kide: 0,75	
6 kide: 0,65	
7 kide: 0,55	
7 kide baino gehiago: 0,50	

Betiere, bizikidetza unitate bakoitzak jasoko duen diru-laguntza kopurua gehienez 150 eurokoa izango da (ikasten aritzeagatik jasotako kopurua kontuan izan gabe).

Ikasten ari den eskatzaileari **10 euro** emango zaizkio, hilean. Betiere, kontuan izango da ikasketa ofizialak (unibertsitateko ikasketak, masterrak...) egiten aritzea, edo ikastaroen kasuan, 150 ordutik gorakoak izatea. Dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du interesdunak. Ezingo da ikasketerako diru-laguntzarik jaso beste bat jaso badu edo jasotzen ari bada kontzeptu berekin. Eskatzaileak zinpeko agiria sinatu beharko du adierazteko ez duela jaso edo ez dela jasotzen ari kontzeptu horretarako beste diru-laguntzarik.

Bizikidetza unitate bakoitzari %10 gehiago emango zaio etxea partekatzeagatik. Gehienez, 12 hilabeteko epealdi baterako izango da diru-laguntza.

Pentsio osagarriak diru sarrera gisa hartuko dira kontuan, hura ordaindu behar duen ezkontide ohiaren diru sarreraren minorazio gisa, eta jasotzen duen ezkontide ohiaren diru sarrera gisa, baldin eta pentsio osagarria ordaindu behar duen ezkontide ohiak agirien bidez egiaztatzen badu benetan ordaindu duela.

Los coeficientes de ponderación N y A, aplicables a la determinación de los ingresos anuales ponderados serán los siguientes:

"N" coeficiente de ponderación N° de miembros	"A" coeficiente de ponderación n° de perceptores/as
1 miembro: 1,00	1 perceptor/a: 1,00
2 miembros: 0,95	2 perceptores/as: 0,90
3 miembros: 0,90	3 perceptores/as o más: 0,85
4 miembros: 0,85	
5 miembros: 0,75	
6 miembros: 0,65	
7 miembros: 0,55	
Más de 7: 0,5	

En cualquier caso, la subvención que se le conceda a cada unidad convivencial no podrá superar los 150 euros (no incluido el importe que reciba por estar estudiando).

Si la persona solicitante está estudiando, se le concederán **10 €** más, siempre y cuando sean estudios oficiales (estudios universitarios, masters...) o, en el caso de cursos, si superan las 150 horas. La persona interesada deberá presentar el correspondiente certificado. No procederá esta subvención si ya se ha recibido o se está percibiendo otra para ese mismo estudio o curso. La persona solicitante tendrá que firmar una declaración jurada de no estar recibiendo otra subvención para ese estudio o curso.

Se asignará a cada unidad convivencial un 10% más por compartir la vivienda. La subvención será como máximo para un periodo de 12 meses.

Las pensiones por contribución a cargas familiares y alimentos en caso de separación entre excónyuges podrán computarse como minoración de ingresos en el caso de la persona que lo paga y como ingresos para la que lo percibe, si la persona que paga la pensión complementaria certifica debidamente con documentos el citado pago.

Banatzeko diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da, esleitutako diru partida agortu arte.

En caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento procederá al prorrateo de la misma entre todas ellas.

11. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza bizikidetzaren unitate bakoitzeko ematen da, berau pertsona bakarrak edo gehiagok osatua izan daiteke.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan zatikatuta egingo da.

— Lehenengo ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da. Lehen ordainketaren zenbatekoa, data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen arabera proportzioan egingo da.

— Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren gainerako zatiri dagokiona, oinarri hauetako 12. artikuluan eskatzen diren egiaztatze agiri guztiak aurkeztutakoan egingo da.

Alokairu partekatua denean, kontratuan ez bada zehazten zenbat ordainduko duen bizikidetzaren unitate bakoitzak, bizikidetzaren unitate bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean. Beste era batera izango balitz, zinpeko adierazpen bat sinatu beharko dute kontratuaren titular guztiak adierazteko bakoitzak zenbat ordainduko duen, eta kopuru horrek bat egin beharko du justifikatzeko ekarriko duen ordainagiriarekin.

Etxebizitza bakoitzeko eskatzaile bi edo gehiago daudenean eta laguntzarako eskubidea dutenean, ordainketa eskatzaile bakoitzaren bankuko kontuan egingo da, **betiere, bizikidetzaren unitate bakoitzak Udalarri aurkeztu badiu dagokion alokairuaren zatiaren ordainagiria.**

Artículo 11. Abono de las ayudas.

La subvención reconocida es por unidad convivencial, pudiendo estar constituida la misma por una o varias personas.

El abono de la subvención se realizará fraccionadamente en dos pagos.

— El primer pago se realizará tras la resolución de la convocatoria.

La cuantía del primer pago será proporcional a los gastos de alquiler que se hayan justificado hasta esa fecha.

— El segundo pago, correspondiente al resto de la subvención, se realizará tras la presentación total de la documentación justificativa según se indica en el artículo 12 de las bases reguladoras.

En caso de arrendamiento compartido, cuando en el contrato no se especifique el importe a pagar por cada unidad convivencial, el cálculo de la ayuda por unidad convivencial se realizará dividiendo la renta mensual total de la vivienda, entre el número total de titulares del contrato. Si fuera de otra forma, las personas titulares del contrato deberán firmar una declaración responsable, indicando la cantidad a pagar cada una, debiendo coincidir con el justificante de pago que presente cada una.

Cuando existan dos o más personas solicitantes por vivienda con derecho a ayuda, el abono se realizará en la cuenta de cada solicitante, **siempre que cada unidad convivencial presente al Ayuntamiento su correspondiente justificante de pago del alquiler.**

12. artikulua. Justifikatzeko agiriak.

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, egiaztatze agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. Bizikidetzaren unitate bakoitzak aurkeztu beharko du dagokion hileko alokairuaren zatiaren ordainagiria. Ez da onartuko alokairu osoaren ordainagiri bakarra, bizikidetzaren unitate desberdinak baldin badaude partekatzen alokairua.

b) Banandu edo dibortziatuen kasuan, seme-alabengatik mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagozkien hileko ordainketa agiriak.

c) Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga betebeharrak betetzerakoan egunera dagoela egiaztatzea. Gainera, bizikidetzaren unitateko 18 urtetik gorako guztiek Zumaiako Udalarekin zergak, tasak, arielak eta zehapenak eguneratuta edukiko dituzte.

d) Zinpeko aitortpena sinatuta adierazteko ez eskatzaileak, ezta bere bizikidetzaren unitateko inork ere, ez duela beste inolako diru-laguntzarik jaso edo jasotzen ari alokairua ordaintzeko.

Agiriak aurkezteko epea:

Artikulu honetan zerrendatutako egiaztatze agiriak, urte bakoitzean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdian adierazitako epearen barruan aurkeztuko dira.

Artículo 12. Documentación justificativa.

Con carácter general, las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán mediante la presentación de la documentación justificativa que contendrá:

a) Justificantes de los pagos de las mensualidades correspondientes del contrato de alquiler. Cada unidad convivencial tendrá que presentar su recibo de pago de alquiler mensual. No se admitirá un recibo por el importe total del alquiler en el caso de que haya varias unidades convivenciales compartiendo la vivienda.

b) En el caso de personas separadas o divorciadas, justificantes de pago mensuales de las pensiones por manutención y las cuotas hipotecarias existentes.

c) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración. Además, todos los miembros de la unidad convivencial mayores de 18 años tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Zumaiá.

d) declaración jurada firmada de que ni la persona solicitante ni ningún miembro de su unidad convivencial haya recibido o esté recibiendo cualquier otra ayuda para el pago del alquiler.

Plazo de justificación:

La documentación justificativa relacionada en este artículo deberá presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Deialdian, diru-laguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Zumaiako Udalak diru-laguntzak emateko ordenantzan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

13. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Helburu bereko beste diru-laguntza bat ez dela kobratzen frogatzeko erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da.

Laguntza horien eskatzaile gisa, berariaz baztertuta daude Bizigune programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten eskatzaileak.

14. artikulua. Finantziazioa.

Alokairurako diru-laguntzak finantzatzeko diru baliabideak Zumaiako Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu kredituak erabiliko dira.

Diru-laguntzak emateko, Udalak dagokion aurrekontu partida bideratuko du, eta aurrekontu horren zenbatekoa izango da Zumaiako Udalak emango duen gehieneko kopurua.

IV. PROZEDURA

15. artikulua. Balorazio irizpideak.

Diru-laguntzak emateko oinarriko irizpideak oinarri hauen 4 eta 5. artikuluetan zehaztuta daude. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak

Transcurrido el plazo establecido en la convocatoria para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado anterior, tendrá los efectos previstos en la Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas del Ayuntamiento de Zumaiá.

Artículo 13. Concurrencia con otras ayudas.

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases no serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Deberá de prestarse declaración responsable de no estar cobrando otra ayuda destinada al mismo fin.

Se excluye expresamente como demandantes de dichas ayudas a los solicitantes que dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.

Artículo 14. Financiación.

Los recursos económicos destinados para financiar las ayudas para el alquiler procederán de los correspondientes créditos presupuestarios consignados al efecto en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Zumaiá.

El Ayuntamiento dispondrá la partida correspondiente con el objeto de conceder las ayudas, y las mismas no sobrepasarán la partida destinada a ello.

IV. PROCEDIMIENTO

Artículo 15. Criterios de valoración.

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas se detallan en los art. 4 y 5 de estas Bases. Comprobado el cumplimiento de las condiciones y

betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion diru-laguntzak ordenantza honetan ezarritako baldintzetan emango dira.

Eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak dagozkion aurrekontu partidan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badu, Udalak zenbateko horren banaketa proportzionalki egingo du.

16. artikulua. Diru-laguntza eskaeren ebazpena.

Espedientearen izapideak egin ondoren, Udaleko teknikariek dagozkion azterketa egin eta txostena egin ostean, Alkateak, oinarrietan ezarritakoarekin bat, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du.

Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era zehaztuko dira.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

V. DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

17. artikulua.

Zumaiako Udalak egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Zumaiako Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, diru-laguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

requisitos, se concederán las ayudas en las condiciones establecidas en la presente ordenanza.

En el caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento procederá al prorrateo de la misma entre todas las solicitudes.

Artículo 16. Resolución de la solicitud de la subvención.

Instruido el expediente y previo estudio e informe de los servicios técnicos municipales, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución, reconociendo o denegando la solicitud, de conformidad con lo que establecen las bases.

En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

Dicha resolución será notificada a las personas interesadas.

V. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 17.

El Ayuntamiento de Zumaia podrá requerir a las personas beneficiarias la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

Las personas beneficiarias de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Zumaia en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

VI. ARGITARA EMATEA**18. artikulua.**

Zumaiako Udalaren webgunean eta iragarki oholean argitaratuko dira emandako diru-laguntzen zerrenda, horiek jasoko dituzten onuradunak eta jasotako diru-kopuruak.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

VII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA**19. artikulua.**

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.

VIII. ERREKURTSOAK**20. artikulua. Errekurtsok.**

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean hura onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

VI. PUBLICIDAD**Artículo 18.**

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Zumaiá y en el tablón de anuncios del mismo.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases reguladoras de la concreta subvención.

VII. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES**Artículo 19.**

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases, será resuelta por el órgano encargado de conceder la subvención.

VIII. RECURSOS**Artículo 20. Recursos.**

Contra las presentes bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente, o impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo